



AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

Ezaugarri orokorrak:

- Idatzizko proba honek 4 ariketa izango ditu.
- 1. galdera: Derrigorrezkoa da, eta ez du hautatzeko aukerarik emango.
- 2., 3., eta 4. galderak: Bi aukeren artean bakarra aukeratu behar duzu (adibidez: 2.1, 3.2, 4.1).

Beste ohar batzuk:

- 2. eta 3. galderak: Enuntziatu zehatzera mugatu behar zara, eta gehienez 150 hitzetan erantzun galdera bakoitzari.
- 4. galdera: Proposatutako testu bietako bat aukeratu eta iruzkindu beharko duzu.

Zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpide espezifikoak:

1. galdera (2 p.):

- a) Testuan txertatutako akatsen identifikazioa: 1 p.
- b) Akatsen zuzenketa (zuzen idaztea): 1 p.

2. eta 3. galderak (2 p. galdera bakoitza):

- a) Galdetzen denari egokitzeko gaitasuna: 0,75 p.
- b) Kontzeptuen erabilera egokia eta berariazko hiztegia: 1 p.
- c) Gaiaren testuingurua: 0,25 p.

4. galdera – Testu-iruzkina (4 p.):

- a) Testuaren kokapena (testu mota, egilea, jasotzaileak, garaia): 0,5 p.
- b) Testuaren analisisa: testuaren oinarritzko ideiak nabarmentzea: 1 p.
- c) Testuinguruan jartzea: testua bere prozesu historikoan ezartzea: 2 p.
- d) Testuaren garrantzia: kokatzen den aldi historikoa ulertzeko testu horrek duen garrantzia adieraztea: 0,5 p.

Zuzentasun ortografikoa:

Beharrezkoa da idatzizko ekoizpenen zuzentasun ortografikoari arreta jartzea. Akats ortografiko bakoitza 0,1 punturekin zigortuko da, gehienez puntu bateraino.

Ez ahaztu azterketa-orri guztietan kodea jartzea



1. GALDERA (2 puntu): Iturriei buruzko hausnarketa kritikoa.

Zure institutuko aldizkarian sartu berri zara dibulgazio historikoaren ataleko arduradun gisa. Ikaskideek esan dizute ChatGPT bidez egindako testuren bat dutela, baina zalantzan jartzen dutela testuaren zehaztasuna. Beraz, honako testu hau berrikusteko eskatu dizute, balizko akatsak antzeman eta zuzentzeko. **Bost dira aurkitu beharreko akatsak.**

“Utz iezaiozue emakumeari den bezalakoa agertzen, hura ezagutu eta epaitzeko; errespetatu ezazue gizaki izateagatik duen eskubidea; (...) eta baldin eskubide konstituziogilea, herri zibilizatuen arau juridiko gisa, gero eta hurbilago badago tiraniaren kontzeptutik, ez iezaguzue arrazoitzat aipa izaki desberdinen arteko desberdintasunaren printzipio aristoteliko zaharkitua (...). Utz iezaiozue emakumeari Zuzenbidean aritzen, hasieran hanka-sartzeak eta zalantzak izanda ere, horrela bakarrik heziko baita hartan.

(...) Konstituzio honen garaia eta espiritua kontuan hartuta, asko poztu nau pentsatzeak mundu zibilizatuko orain arteko konstituziorik onena, libreena eta aurreratuena izango dela. Eta pentsatu dut, halaber, Monarkia ezarri eta hamabost egunera behin-behineko Gobernuaren dekretuak Errepublikaren menpe egon garen aurreko hogeit hamar mendeetako aitortu ez ziotena aitortuko diotela emakumeari. Uste dut hau izango dela emakumearen [sufragio] eskubidea onartuko duen azken latindar herrialdea; lehen aldiz entzungo da latindar ganbera batean emakumearen ahotsa, emakumea bera bezain xumea, baina egiaren haizeak ekarri nahi dizkiguna; eta harro-harro sentitzen naiz, nire Frantzia izango baita emakumearen askatasunaren bandera jasoko duen herrialdea (...). Eta honela diotsuet, legegile jaunak: (...) ez ezazue onar beste latindar nazio batek, datozen egunetan, guk baino lehenago ezartzea bere Konstituzioaren buruan emakumearen askatasuna, zuen kidearen askatasuna.

Diario de Sesiones de las Cortes Constituyentes de la República Española; 1931ko irailaren 1eko saioa”.

Erantzun bi atal hauei:

1.1.- Identifika itzazu 5 informazio-okerrak (1 puntu)

1.2.- Zuzen idatz itzazu antzemandako akatsak (1 puntu)



2. GALDERA (2 puntu): Proposatzen zaizkizun gertaera historikoetatik BAT aukeratu, eta identifikatu eta azaldu hori ERAGIN DUTEN KAUSA NAGUSIAK (gehienez 150 hitzetan):

2.1. 1917ko krisialdia.

2.2. Bizkaiko industria iraultza.

3. GALDERA (2 puntu): Proposatzen zaizkizun gertaera historikoetatik BAT aukeratu, eta identifikatu eta azaldu horren ONDORIO NAGUSIAK (gehienez 150 hitzetan):

3.1. Frankismoa Euskadin: hazkunde ekonomikoa eta aldaketa sozialak.

3.2. Autarkia ekonomikoa.

4. GALDERA (4 puntu): Testu-iruzkina.

Bi testu hauetako BAT aukeratu, eta egin azterketa kritikoa.

4.1. (11. Testua) EUSKELDUN BATZOKIJAREN ESTATUTUAK (1894)

1. artikulua: Euskeldun Batzokija izenarekin sortzen da Bilboko hirian aisiarako zentro bat, helburu duena (...) Bizkaiko *Jaun Goikua eta Lagi-Zarra* goiburuan jasotako doktrinen jarraitzaile diren herritarren arteko batasun- eta adiskidetasun-loturak sortzea.

2. artikulua: Behin Bizkaiko Elkarte Nagusia sortzen denean, Bizkai-Batzar deituko dena eta Arana eta Goiri'tar Sabinok idatzitako estatutuak izango dituen, *Euskeldun Batzokija* haren mende geratuko da (...).

3. artikulua: *Jaungoikua*. Bizkaia katolikoa, apostolikoa eta erromatarra izango da bere barruko bizitzako adierazpen guztietan eta gainerako herriekiko harremanetan.

4. artikulua: *Lagizarra*. Bizkaia askatasunez birsortuko da. Bere lege tradizioaletan, foruetan, jasotako funtsezkoena osotasunean berrezarriko du. Gure arbasoen usadio eta ohitura onak berrezarriko ditu. Euskal arrazako familiez osatuko da gehienbat, erabat ez bada. Euskara izendatuko du hizkuntza ofizialtzat.

5. artikulua: *Eta*. Ordena erlijiosoaren eta politikoaren eta gauza jainkotiarren eta gizatiarren arteko harmonia perfektuaren eta adostasunaren gainean ezarriko da Bizkaia.



ESPAINIAKO HISTORIA

HISTORIA DE ESPAÑA

6. artikulua: *Jaungoikua eta Lagizarra bereiztea*. Ordena erlijiosoaren eta politikoaren, eklesiastikoaren eta zibilaren arteko bereizketa argi eta nabarmenaren gainean ezarriko da Bizkaia.

7. artikulua: *Jaungoikua Lagizarren aurretik jartzea*. Politikoak erlijiosoarekiko eta Estatuak Elizarekiko izango duten erabateko eta baldintza gabeko mendekotasunaren gainean ezarriko da Bizkaia.

8. artikulua: Bizkaia, bere arraza, bere hizkuntza, bere fedea, bere izaera eta bere ohiturak kontuan hartuta Araba, Nafarroa Beherea, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoaren senide izanik, sei herrialde horiekin elkartu edo konfederatuko da Euskal Herria (Euskaria) izeneko osotasuna eratzeke, baina bere autonomia partikularra batere murriztu gabe (...).

Bizkaitarra (Bilbo), 1894-05-24.

4.2. (23. Testua) ESPAINIAKO 1978KO KONSTITUZIOA (1978-12-29)

Juan Carlos I.a Espainiako Erregeak honako hau ikusi eta ulertzen duzuen guztiei zera jakinarazten dizue: Gorteek honako Konstituzio hau onartu dutela eta espainiar herriak berretsi egin duela:

1. art. 1. Espainia zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko gisa eratzen da, bere ordenamendu juridikoaren balio gorentzat hartzen dituelarik askatasuna, justizia, berdintasuna eta pluralismo politikoa.

2. Subiranotasun nazionala Espainiako herriari dagokio, eta harengandik datozkio Estatuari botereak.

3. Espainiako Estatuaren forma politikoa monarkia parlamentarioa da.

2. art. Konstituzioak Espainiako nazioaren batasun ezin hautsizkoan hartzen du oinarri, hura izanik espainiar guztien aberri erkide eta banaezina, eta era berean aitortzen eta bermatzen du Espainia osatzen duten nazionalitate eta eskualdeen autonomia-eskubidea eta haien arteko elkartasuna.

66. art. 1. Gorte Nagusiek Espainiako herria ordezkatzeko dute, eta Diputatuen Kongresuak eta Senatuak osatuak dira.

98. art. 1. Gobernua honela osatua da: presidentea; presidenteordeak, hala badagokio; ministroak, eta legeak ezarritako gainerako kideak.

117. art. 1. Justizia herriarengandik dator, eta Botere Judiziala eratzen duten epaile eta magistratuak administratzen dute, Erregearen izenean. Epaile eta magistratuak independente, mugiezin eta erantzule dira, eta legearen agintera baino ez daude menderatuak.

143. art. 1. Konstituzioaren 2. artikuluan aitortutako autonomia-eskubidea erabiliz, autogobernura iritsi eta autonomia-erkidego gisa eratu ahal izango dira historia-, kultura- eta ekonomia-ezaugarri erkideak dituzten probintzia



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko OHIKOA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2025

ESPAINIAKO HISTORIA

HISTORIA DE ESPAÑA

mugakideak; uharte-lurraldeak, eta historiaz eskualde-izaera duten probintziak. Hartarako, Titulu honek eta kasuan kasuko autonomia-estatutuek diotenak agintzen du.

XEDAPEN GEHIGARRIAK. Lehena. Konstituzioak babestu eta errespetatu egiten ditu foru-lurraldeen eskubide historikoak.

Foru-araubide horren eguneratze orokorra, hala badagokio, Konstituzioaren eta autonomia-estatutuen esparruan egingo da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA. 2. Oraindik ere inolako indarririk duen heinean, behin betiko indargabetutzat jotzen da 1839ko urriaren 25eko Legea, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko probintziei eragin liezaiekeen guztian. Modu berean, behin betiko indargabetutzat jotzen da 1876ko uztailaren 21eko Legea.

Gorteen onartua 1978ko urriaren 31n, eta erreferendumean onartua 1978ko abenduaren 6an.

Boletín Oficial del Estado, 1978ko abenduaren 29a.

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko OHIKOA

ESPAINIAKO HISTORIA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2025

HISTORIA DE ESPAÑA

